

Izenpea

Bilbao Kirolak, S.A.ren lehendakariak sinatutako deialdiaren onarpenaren aterakina 2026ko urtarrilaren 30ean Erabakiaren laburpena, **Ez ohiko joan-etorriak dirulaguntzetarako programa. (5. Lerroa)**

Textua

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3 b) eta 20.8 a) artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, deialdiaren pasarte argiratu da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke. (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehena. Onuradunak:

Dirulaguntza hauek eska ditzaketen kirol entitateek, nahitaez:

- a. 2026. urtean, Bilboko klubetako kirolarien lehiakortasuna eta prestakuntza hobetzeko estatuko edo nazioarteko txapelketetara edo lehiaketetara joango dira. EAetik kanpo ospatutakoak
- b. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen eta Federazioen Erregistroan izena emanda egon behar dute.
- c. Bilbon eduki behar dute egoitza.
- d. Federazio- edo eskola-lehiaketa batean egon behar dute izena emanda.
- e. IFZ eduki behar dute (Identifikazio Fiskaleko Kodea).

Bigarrena. Xedea:

2026. urtean, Bilboko klubetako kirolarien lehiakortasuna eta prestakuntza hobetzeko Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ospatzen diren estatuko edo nazioarteko txapelketetara edo lehiaketetara joateko dirulaguntza ematea.

Ez da dirulaguntzarik emango estatutik kanpo egiten diren lehiaketetara joateko.

Oinarri Arautzaileak

Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra.

Laugarrena. Diru-kopurua: 20.000 €

Bostgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita eta 2026ko urriaren 08ra arte, egun hori barne. Azken eguna baliogabea bada (zapatua, domeka edo jaieguna), hurrengo egun baliodunera aldatuko da.